

**BILBO.** Zabalgarbi proiektuaren kontra, Ekologistak Martxan taldeko hogeitasei bat lagun batu ziran Foru Jauregian



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Bilboko Kale Nagusiko Foru Jauregiaren aurrean batu ziran Ekologistak Martxan taldeko lagunak.

## Aldundiak herritarrei iruzur egin deutsela salatu dabe

Zaborrak murriztu eta berziklatzearen aldeko apostua barretsi dabe

Irene Berro

Foru Aldundiak ez ditu hondakinak murrizten ezta berziklatzen be. *Erretzeari Stop!* lemapean, Bizkaiko Ekologistak Martxan erakundeko hogeitasei bat lagun batu ziran Foru Jauregiaren aurrean atzo, Bilbon. Bizkaiko Diputazioa Arraiz mendian egiten dabilen zaborrak errausteko labearen kontra, Zabalgarbi proiektuaren kontra, batu ziran bertan, hain zuzen.

Ekologisten eritxiz, Aldundiak iruzur egin deutse Bizkaiko herritarrei. «Zaborren gestiorako tasea nabarmen igotzea ganera, Zabalgarbi ingurumeneko zeinen kaltegarria izango dan azaldu ez deutselako, eta zelan ez, herritarren osasunean zelan erango dauen be ez dabelako aitatu».

Joan dan astean, urtarrilaren biam, aurkeztu eben Bizkaiko ahalzun nagusi Josu Bergarak eta Ingurumen diputau Maria Esther Solabarrietak Zabalgarbi barruan Arraiz mendian egiten dabilzan obrak; urte eta erdi barru zaborrak errausteko labea martxan ipini gura dau Diputazioak. «EAEko Auzitegi Nagusiak, oster, Zabalgarbi proiektuaren ganean zalantza ugari daukazala agertu dau behin baino gehiagotan, eta oraindino ez dau epaia emon», gogoratu eragin eutsien ekolo-

gistek Foru agintariei. Eta «zer gertatuko da Zabalgarbi amaituta epaileek esaten badabe proiektua legez kanpoko dala?», itaundu eutsien ekologistek.

### Bilboko zaborrak errausteko, proiektuaren bigarren atala

Ekologistak Martxan taldeko partaideek zaborrak murriztu, berrerabili eta berziklatzearen aldeko jarrera agertu eben, barriro be. Uste dabe, Garbiker enpresa publikoaren bidez zaborrak gestionetan dituen udalerriez eta Ezkerraldeko udalerriez ganera, Bilboko hondakinak errausteko Zabalgarbiko bigarren atala egin gura dauela Aldundiak. «Ezkerlaldeko herriek eta Garbiker barruan dagozan herriek zaborrak tratetako modu karu eta kutsagarriaren alde egin dabe; Bilboko Udalak, baina, ez dau erabagi uriko zaborrak erraustea. Horrenbestez, Diputazioaren asmoak zentzunik ez daukala pentsetan dogu».

Zabalgarbi proiektuak ez ditu Bilbo uriko hondakinak hartzen, baina Bergarak eta Solabarrietak iragarri daben lez, errausteko sistemearen proiektuko bigarren atala egin ezker, ingurumenari eragindako kalteak itzelak izango dira, Foru Jauregian batutako ekologisten eritxiz. Ondorioz, zaborren tra-

tamenduen kontu horretan esku hartzeko eskatu eutsien Bilboko Udalari: «Diputazioak Udalaren eskuduntzak zapaldu ez daizan, eta Zabalgarbi moduko astokerian parte hartu ez daian», ganeratu eben.

## JON TORRE

BIZKAIKO EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

### «Bizkaitarron osasuna kaltetuko dau Zabalgarbik»

I.B.

Bizkaiko ahalzun nagusi Josu Bergarak joan dan astean Zabalgarbi proiektuaren ganean egindako adierazpene-kin ez dago ados Bizkaiko Ekologistak Martxan taldeko kide Jon Torres.

■ **Zabalgarbi proiektua «garbia, europarra eta segurua» dala esan dau Josu Bergara diputau nagusiak.**

Alderantziz dala pentsetan dot nik. Errausteko sistema ez da sistema garbia; orain urte eta erdi Madrilgo Valde- mingomez errausteko labea zarratu eben dioxinak isurtzen zitualako. Europako hainbat herritan, ganera, zaborrak errausteko azpiegiturak garbiak ez dirala konpro- bau dabe. Proiektua, beraz, europarra danik ez neuke esango. Ganera, Europako Batasuneko Justizia Auzite- giak errausteko azpiegiturak baino, berziklatzeko azpiegi- turak egitea gomendatu dau.

■ **Zeure eritxiz, beraz, se- gurua be ez da Zabalgarbi.**

Ez, bape. Bizkaiko Foru Al- dundiak proiektua eratze- ko orduan, ganera, ez dau egin ingurumenean izango dauen eraginaren ganeko azterke-



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

tarik. Ez dabe aztertu Bizkai- ko herritarren osasunean ze- lango eragina izango dauen Zabalgarbik. Zelan ziurtatu leikie orduan Zabalgarbi se- gurua izango dana? Bizkaitar- ron osasuna kaltetuko dau Zabalgarbik, ziur gagoz.

■ **Horren aurrean zein da zuok egiten dozuen propo- samena?**

Zaborrak murriztea, barriro erabiltea eta berziklatzea. Za- balgarbi errentagarria izate- ko kartoia eta papera erreko ditue; uneotan berziklatzen dabilzan material bi, hain zu- zen.

**CB CANAL BIZKAIA**  
Bizkaiko Telebista

URTARRILA 12 IGANDEA

10:30 ALBERT, EL 5º MOSQUETERO  
11:00 ÉRASE UNA VEZ...  
12:00 PETER PAN  
12:30 TIRANOSAURIOS REX  
13:00 BRIGADA ESPACIAL  
14:00 JUEGAS EN CASA  
14:30 RESUMEN DEPORTE AMERICANO  
15:00 NOTICIAS LOCALIA  
15:30 **BILBAO CONFIDENCIAL**  
16:00 CINE: "Ni se te ocurra"  
18:00 CINE: "Asesinato al alba"  
19:30 SERIE: "Brooklyn South"  
20:00 DOCUMENTAL BBC EXCLUSIVE: "La fórmula del dinero"  
22:00 CINE: "África"  
00:00 BOXEO.  
01:30 Cine VOS: "Christmas Holiday" (Luz en el alma)

**inguralde**

## INGURALDE LAGUNTZA PLANA

### IREKIERA-TASEN ITZULPENA

#### HELBURUA:

Enpresen eratzea, instalazioa, garapena eta mantentzea erraztea Barakaldoko udalean.

#### LAGUNTZA MOTA:

Udaletxeari Irekiera-Tasa moduan ordaindutako zenbatekoaren %100aren itzulpena.

#### ONURADUNAK:

Irekiera-Tasa 2002. urtean zehar ordaindu duten enpresak:

- 2001 eta 2002 urteetan zehar Barakaldon sortu diren enpresa eratu berriak.
- Inguraldeko enpresen haztegia dauen enpresak, 1999tik 2002era bitartean EJJZan alta hartu dutelarik.
- 2001 eta 2002 urteetan zehar lantoki berri bat eratu edo Barakaldoko udalean euren kokalekua aldatzen duten enpresak.

#### ESKARIENTZAKO EPEA:

2003ko otsailaren 14arte.

Europako Gizarte Fonda



Fondo Social Europeo

Informazioa, oinarriak eta eskariak

### INGURALDE

K/ Aldapa, 3 A 48901 BARAKALDO  
TL.: 94 4789269

BARAKALDOKO UDAL GORENA Erakunde Autonomoa

Organismo Autónomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO